

KANALAK:

Donostian lokaltxo bat alokatu beharko dugu bertan sistema informatikoaren inbertsioa edukitzeko. Chip-a telefono bidez, gure webgunean, edo lokalean bertan erosi ahal izango da, baina jaso soilik bulegoan; hau da, ez dugu etxera bidaliko eta ezingo da herriko beste puntu batzuetan jaso, era honetan guztiz anonimoa izango da eta langileez gain ez du beste inork ezereen berri izango. Chiparen berri izateko Gipuzkoako udalerrri desberdinetako udaletxeek etxe guztietara gure produktuaren berri izateko informazioa bidaliko dute eta horrez gain telefono fakturan arrastorik utziko ez duen telefono zenbaki bat eskainiko diegu zerbitzuaren inguruan informazio gehiago izan dezaten.

Etxera bidalitako informazioaz eta telefono zenbaki bat eskuragarri edukitzeaz gain Foru Aldundiaren webgunean edo gure webgunean eta emakumeen elkarteetan ere informazioa eskuragarri egongo da. Mehatxuak dauden kasuetan Ertzaintzaren bidez iritsi daiteke bezeroa guganaino.